

HEDATZE 22-23

Zer da HEDATZE proiektua?

Proiektu honen bidez ikasleek **hainbat jardueratan parte hartzeko aukera daukate**. Jarduera horiek arratsalde izango dira, ohiko eskola orduetatik kanpo: **15:00 – 16:30**. Jarduera batzuk 45'koak dira, beste batzuk, berriz, ordu t'erdikoak. Jarduera horietan parte hartzea borondatezkoa da.

Jarduerak bi motatakoak dira:

1. **Eskola indartzeak edo errefortzuak:** hainbat irakasgaietan eskolako eskakizunei jarraitzeko arazoak dituztenentzat edo pendienteak dituztenentzat. **Irakasleek erabakiko dute** zein ikaslek parte hartu beharko duten jarduera horietan.
2. **Tailerrak:** eskolako gaiekin zerikusia ez duten hainbat arlotan **trebatzeko jarduerak**. Denetarik: sukaldaritza, eskulangintza, kirola, hizkuntza trebakuntza, dantza, jokoak, bizikidetza... Ikastaro gehien arduradunak irakasleak izango badira ere, institutukoak ez diren arduradunak ere parte hartu dezakete: gurasoak, ikasle ohiak... **Ikasleek aukeratu dezakete** zein tailerretan parte-hartu nahi duten.

EGUTEGIA





Urriak 3-11	Ikasleei tailer eskaintzari buruzko informazioa helarazi eta haien erantzunak jaso.
Urriak 13-21	1.Txandako indartze orduen behin-betiko banaketa eta tailerren antolaketa.
Urriak 24 – Otsailak 15	1. TXANDA Ebaluazioak eta aurrebaluazioak dauden asteetan ez da jarduerarik egingo
Otsailak 16-24	2.txandako indartzeen eta tailerren antolaketa.
Otsailak 27- Maiatzak 31	2. TXANDA Ebaluazioak eta aurrebaluazioak dauden asteetan ez da jarduerarik egingo

HEDATZE 22-23

ESKOLA INDARTZEAK ETA TAILERRAK. LABURPENEA

ASTELEHENA

Ekintza	Irakasleak Deskribapena	Mailak	Orduetgia
	Antzerkia eta eskulanak frantsesez Ir: Cristina O Antzezlanen eta eskulanen bidez, hizkuntzan, literaturan eta kulturaren sakontzea.	1-2 3-4	15:00-15:45
	Berdintasun batzordea Ir: Idoia E Tailer honen bidez, emakumeen eta LGTBQ+ komunitatearen berdintasunari buruzko hainbat gai buruzko hausnarketa egingo dugu. Instituturako jarduerak ere prestatuko ditugu, eta talde bat sortuko dugu gai horietaz askatasunez hitz egin ahal izateko.	1-2 3-4	15:00-15:45
	Astea antolatuz Ir: Maider L, Oihana R Bidelagun programa lehenengo mailan besterik ez dagoenez aurren, ondo legoke ikasleek etxerako lanak egiteko gune bat eskura edukitzea.	1-2 3-4	15:00-15:45
	Erlaxazioa eta bisualizazioa Ir: Sagrario J Arnasketa diafragmatikoaren ariketak. Arnasketa alternoa. Erlaxatzeko teknikak. Erlaxazio progresiboaren ariketak. Bisualizazioa. Erlaxazio gidatuak. Mindfulness ariketak	4	15:00-15:45
	Alemana Ir: Garazi E Alemaneko oinarriko kontzeptuak ikasi. Behin horiek menperatua, aditz denbora ezberdinak ikasiko dituzte. Bereziki orain aldia eta iragana.	3-4	15:45-16:30
	Institutua apaitzen Ir: Ainhoa P, Izaskun B Instituan egonaldia atseginagoa izan dadin lagundu nahi dugu. Energia eta motibazioa areagotzeko korridoreak koloreztatuko ditugu. Institutua landarez oxigenatuko dugu.	2	15:00-16:30
	Yoga eta estiramentuak Ir: Sara R Yoga eta estiramendu klasea	1-2 3-4	15:00-16:30
	Donostia ezagutuz Ir: Garazi R, Sara R Donostiako auzo desberdinen inguruan informazioa bildu, landu, antolatu eta euskarri desberdinetan eduki hori aurkezteko estrategiak garatu. (Eskolako aldizkari bat sortu, tiktoken auzo bakoitzaren inguruan datu interesgarriak aurkeztu, YouTube kanala bat sortu gune bakoitzaren historia – garrantzia azalduz, Polar Steps aplikazioan nerabeentzat ibilbideak antolatu.	1	15:00-16:30
	Igeriketa Ir: Uxue F, Iñigo H Igeriketaren oinarri basikoak bereganatu Igerian ikasi edota teknikoki garapen bat lortu nahi duten ikasleentzako ikastaroa.	1-2 3-4	15:00-16:30
	GH errefortzua eta sasoi fisikoa lantzea Ir: Haritz Z GH errefortzua: norberaren gaitasun fisiko motrizak eta fisikoak lantzea. Sasoi fisikoa lantzeko jarduerak.	1-2 3-4	15:00-16:30

	Ikastetxeko koreografia baten sorkuntza Ir: Haritz Z Dantza munduko monitorea baten laguntza puntualarekin (Kultura eskolaren baliabidea adibidez) euskal kantu baten koreografia propioa sortu ikastetxean lantzeko/erakusteko helburuarekin.	1-2 3-4	15:00-16:30
	Sukaldaritza (A) Ir: Gema G Plater desberdinak prestatu talde txikian.	1-2 3-4	15:00-16:30
	Euskara indartzea Ir: Rebeka K, Maddi del Campo, Ane L, Idoia G, Maialen E, Maialen O. (Oihana R, Saioa V, Cristina O, Larraitz A, Koro M, Diego T, Iñigo H)	1-2	15:00-15:45
		3-4	15:45-16:30
	Geo-His indartzea Ir: Carmen S, Ekaitz L, Itziar A (Garazi R, Sara R, Miren E)	3-4	15:00-15:45
		1	15:45-16:30

ASTEARTEA

Ekintza	Irakasleak Deskribapena	Mailak	Ordutegia
	Frantses ahozketasuna Ir: Larraitz A Arazo egoeren bidez, ahozketasuna lantzea..	1-2 3-4	15:45-16:30
	Luzaketak eta "Corea" Ir: Diego T Gorputz atalalak luzatu eta corea landu	1-2 3-4	15:45-16:30
	Zeramika hastapenak Ir: Saioa V, Patxi S (Maria M) Buztinaren ezaugarriak ezagutu. Teknika desberdinak landu: Txurroak, plakak. Buztin mota desberdinekin lan egitea. Engobeak eta esmalteak. Zeramika labearen erabilpena	1-2 3-4	15:00-16:30
	Sukaldaritza (B) Ir: Ainhoa G, Xabier A, Eneko P Ikasleen helburuak edo nahiak kontuan hartuko dira proiektuarekin hasi baino lehen. Beraz, gustoko dituzten errezetak landuko dira.	1-2 3-4	15:00-16:30
	Mahai joko kooperatiboak Ir: Amaia A Mahai joko ezberdinak landuko dituzte	1-2 3-4	15:00-16:30
	Pilota eta erraketa kirolak Ir: Mikel Z, Jon I Esku-pilota, pala, frontenis, mahai-tenisa eta badmintonarekin lehenengo kontaktua.	1-2 3-4	15:00-16:30
	Gaztelania indartzea Ir: Olga S, Edurne T (Maider L, Idoia E, Ainhoa G, Saioa V, Cristina O, Larraitz A, Esther M, Txema G, Koro M, Diego T)	1-2	15:00-15:45
		3-4	15:45-16:30
	Bio-Geo indartzea Ir: Amets A, Iñigo O, Leire B, Izaskun B, (Patxi S)	1-3	15:00-15:45
		4	15:45-16:30
	Fi-Ki indartzea Ir: Iñigo M, Eneko P, Jose Mari L, Maialen M, (Kontxu A, Jon I)	2-3 4	15:00-15:45

ASTEAZKENA

Ekintza	Irakasleak Deskribapena	Mailak	Ordutegia
	Plaza dantzak Ir: Mikel O Oinarrizko dantzak, erromerietakoak edota festa berezietan dantzaten direnak irakatsiko dira. Besteak beste: Pxit, muxikoak, zazpi jauzi, fandango, arin arin, larrain dantza eta abar	1-2 3-4 Batxi	15:00-15:45
	Baratza (agenda 30) Ir: Mikel O "Bankal chino"ak prestatu, Landaketa eta ereite, Mantenimendua, Uzta bildu, Denda: berdura eta barazkien salmenta, Konpost-egitea	1-2 3-4 Batxi	15:00-15:45
	Teklatuaren erabilera Ir: Diego T Teklatuaren erabileran ikasleak trebatzea.	1-2 3-4	15:45-16:30
	Macramé tailerra Ir: Maria M Oinarrizko makrame korapiloetatik hasi eta korapilo ezberdinak konbinatuz egitura ezberdinak gauzatzea.	1-2 3-4	15:45-16:30
	Garapen pertsonala, dantza eta kantua Ir: Koro M Dantza kantua eta hitza partekatua izango dira erabiliko ditugun baliabideak oreka pertsonala lortzeko eta baita sormenaz gozatzeko.	1-2 3-4	15:45-16:30
	Gurutze-puntu eskulangintza Ir: Anne A Gurutze- puntuan trebatzea, honekin eta musikarekin, giro lasai batean kontzentrazio ahalmena hobetuz.	1-2 3-4	15:00-16:30
	Sukaldaritza (C) Ir: Aiert O, Aitor V (Maria M) Sukaldaritza munduan murgiltzea, errezeta sinpleak egiten ikasi, sukaldeko lanak zeintzuk diren ikusi...Sukaldaritzaz gozatzea!	1-2 3-4	15:00-16:30
	Ingelesa indartzea Ir: Elisabet U, Hegiarte A , Harbile A (Anne A, Garazi E, Mikel Z).	1-2	15:00-15:45
		3-4	15:45-16:30
	Matematika indartzea Ir: Idoia Z, David G, Amaia I, (Xabier A, Aiert O, Aitor V, Mikel O, Amaia A, Gema G, Koro M, Diego T, Sagrario J, Uxue F)	3-4	15:00-15:45
		1-2	15:45-16:30